



Bilboko  
Elizbarrutia  
DIÓCESIS DE BILBAO

# **ELIZA BEZALA JARRAITZEN DUGU JESUSEN ATZETIK**

## **I-II. ERANSKINA ERAGILE, KATEKISTA ETA GURASOENTZAT**

**Delegación de Anuncio y Catequesis  
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**

## Eliza bezala jarraitzen dugu <sup>1</sup> Jesusen atzetik

### I. SARRERA

Bere misioari ekin zionetik, Jesusek hainbat ikasle bildu zituen bere inguruan bere bizilagun izan zitezten, lehenik eta behin Bera zein mezu hots egitera jakin zezaten, ondoren bere egintzaren iragarle eta lekuko izan zitezten mundu osoan. Jesusek deitutako ikasleen elkarte txiki hau izan zen gero Eliza izango zenaren hazi.



Beraz, Jesusen atzetik jarraitzeko prest dauden gizon eta emakumeak biltzen direnean sortzen da Eliza. Jarraipena da hasierako fededun elkarteek darabilten funtsezko hitza.

"Denak apostoluen irakaspenak entzuteari eta elkarte-bizitzari emanak bizi ziren, ogi-zatitzea eta otoitza elkarrekin egiten zituztelarik. Mundu guztia izaturik zegoen, apostoluek egiten zuten hainbat egintza harrigarri eta mirarirengatik. Fededun guztiak elkarturik bizi ziren, eta dena denentzat zeukaten: beren lur eta ondasunak saldurik, guztien artean banatzen zuten dirua, nork zer behar zuen. Egunero bildu ohi ziren tenpluan, baina ogia etxeetan zatitzen zuten, otorduak elkarrekin pozik eta bihotz xaloz eginez. Jainkoa goresten zuten, eta herri osoaren estimazioa zuten. Eta Jaunak egunetik egunera gehitzen zizkion elkarteari salbatzen zirenak"

Eg 2, 42-47

Eliza hitzak asanblada, elkarte, bilera adierazten du. Eta horixe da Eliza, Jesusengan sinesten duten, bere atzetik jarraitzen duten eta beren fedea elkartean bizi duten pertsonen bilera. Berdin eta anai-arreba direnen elkarte.

Berdin eta anai-arreba direnen elkarte honetan, banatu egiten zituzten ardura eta egitekoak. Paulok Korintoarrei idatzitako lehen gutunean (1 Kor 12, 4-31), Eliza giza gorputzarekin konparatu zuen: bata zein bestea, guztiz beharrezko eta garrantzitsu diren atalez osaturik dago.



Eta elkarte honetan, guztioi dagokigu misio bera, hau da, Jainkoaren Erreinuaren zoriona iragarri eta bizi: "Jainkoa hemen da, gure artean, guztiontzat bizimodu duinagoa bilatuz. Eta Jainkoarekin beti dago itxaropena eta bizia". Hau da Jesusek Elizari utzitako dion eginkizun eta misioa: Jainkoak gizadi osoarentzat duen nahi hori iragarri eta bizi.

Eta Eliza ez da bakarrik Aita Santua, gotzainak, apaizak... Eliza geu ere bagara, gutariko bakoitza ere Eliza da.

Guztiok gara atal garrantzitsu eta ezinbesteko. Eliza eraikitzeko, hobetzeko, maitatzeko eskaria guztiontzat da; guztioi dagokigu Jesusen misioa, orain geurea ere badena, gauzatzea, "berri on" den bizimodua izatea ingurukoentzat, gizatasun handiagoko, desberdintasun gabeko gizartearen alde borrokatuz, guztien duintasuna bilatuz, fedetik gure lana, familia, koadrila, auzoa... gizatasunez betez.

<sup>1</sup> 3. mailako Familia Katekesi pastoraleko gidatik hartuta. 1. gaia. Eliza bezala jarraitzen dugu Jesusen atzetik. Etorri eta ikusi! gida pedagogikoa

# ERANSKINA ERAGILE, KATEKISTA, GURASOENTZAT



Elizan dena ez da santua, ezta gutxiago ere. Akatsak ugariak, agerikoak eta larriak dira. Izan ere, osatzen dugunok akatsak ditugu, bekatari gara, batzuetan asmatu egiten dugu eta beste batzuetan ez eta guztiok dugu erantzukizuna, handi ala txikia, Elizaren izateko eran.

Baina, nahiz eta akats eta gabeziak izan, Elizak berri ona eman digu eta ematen digu. Elizaren bitartez aurkitu dugu Jesus. Elizan jasotzen dugu kristau bezala bizitzeko deia eta laguntza.

Eliza Jesusen berri ona ezagutu, bizi, ospatu eta iragarri nahi duten jarraitzaileen elkarte da. Horixe da bere eginkizun eta misioa.

Ebanjelioan kontatzen denez, Jesusen hainbat adiskide, jarraitzaile bildu zuen bere inguruan eta berarekin joaten ziren leku guztietara. Ikasle hauei ematen zien Jesusen bere egitasmo, ilusio eta beldurren berri. Konfiantzaz hitz egiten zien, desberdin. Haiekin konpartitu egin zuen, beren bizilagun izan zen, beraiekin taldea eta elkarte eratu zituen.

Jesusen ikasleei esaten dizkien hitzen eta beraiekin egiten zituen egintzen bidez ezagutu dugu Jesusen bere jarraitzaileen lehen elkarteari eman nahi zion nortasuna, elkarte horren ezaugarri nagusiak.

## II. JESUSEN JARRAITZAILEEN ELKARTEAREN EZAUGARRIAK

### Jesusekin bat zetorren elkarte

«Jarraipena» (Mk 1, 18 - 2, 14) hitzaz baliatzen dira, besteak beste lau ebanjelariak Jesusen mezuarekiko atxikimendua eta mezu hori gauzatzea adierazteko. Jesusen atzetik jarraitzea, bere ondoan irautea da, bere hitzak dioskuna entzun eta eskatzen digunari erantzutea, Jesusekin ohiko harreman eta komunikazioa izatea, Jesusen bizimodua geure egiten ikastea.



### Elkarte askatzailea



Jesusek ez du nahi ikasleek berekiko mendetasun inozenterik izatea; pertsona heldu eta burujabe nahi ditu, bere bizitza eta jardueraren arduradun diren pertsona. Kristauak ez ditu bere hautuak Jesusen esan duelako egiten; kristauak Jesusekin antzeman duena bete-betean bizitzeko eta mundua duintasunez betetzeko biderik egokiena dela sentitu duelako egiten ditu hautuak. Jesusen atzetik jarraitzea, beraz, ez da zama, poztasuna baizik, gizakiaren helbururik sakonenei erantzuna bilatu izanak eragiten duen poztasuna (Mt 13, 44-46).

### Anai-arreben elkarte

Jesusek berdintasunezko hartu-emana du beretarrekin, «adiskide» (Lk 12, 4; Jn 15, 15) eta «anai-arreba» (Mk 3, 35; Mt 28, 10; Jn 20, 17) deitzen baititu. Horregatik ez du bere jarraitzaileen artean desberdintasuna piz dezakeen ezer onartzen (Mt 23, 8-10).

Berdintasuna ez dago, hala ere, elkartearen antolaketaren aurka, antolatzea ezinbestekoa baita kanpoan nahiz barruan edozein jarduera garatzeko. Antolaketa, karismen errealitate eta aniztasunean oinarritzen da hain zuzen ere, hau da, kideen berezko edo jadetsitako gaitasunetan. Espirituak indartuta, dohain horiek guztien onerako eskaintzen dira.

## Zerbitzuzko elkartea

Jesusek bere jarraitzaileen berriazko jarrera izan behar duena aipatzen du: «lehen izateko» ezinbestekoa da elkarteko kide guztien zerbitzari izatea (ik. Mt 23, 11; Lk 22, 24-27); «handia izateko» ezinbestekoa da «zerbitzari» egitea, ezinbestekoa da azkenen itxaropen eta beldurrak geure egitea.

Beraz, Jesusen atzetik jarraitzean, kristau elkarteko inork ez du zerbitzatu izatea eskatu behar, zerbitzuren bat eskaini eta azkenak duintasun handiagor bizi daitezela beldur gabe lan egiteko prest egon baizik.

## Behartsuengandik gertu dagoen elkartea

Behartsuen aldeko hautua da ezinbesteko aukera Jesusen elkartean sartzeko: "Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari" (Mt 16, 24), uko egin biezaio gurari pertsonal orori. Hortik datok Jesusen gomendioa: ez dezagula konfiantza jarri aberastasunean.

Kristau elkartean misioa da gainerako gizon eta emakumeak eskuzabaltasunera bultzatuko dituen elkartasuna erakustea. Banatuz irakasten da banatzen. Ogi eta arrainen pasarteko soberakinen ugaritasunak (Mk 6, 37; 8, 1-9) erakusten du erdibanatzearen eraginkortasuna.



Banatzea, maitasunaren adierazpena da; baina ez litzateke jarduera bete-betea izango eta umiliagarri izango litzateke eskuzabaltasun horrek nor bere burua ematea barne hartuko ez balu. Jesusentzat ez da nahiko gizakien arteko ongintza material hutsa, ezinbestekoa da elkarrenganako maitasunezko hartu-eman eta hau gauzak eta norbere burua ematearen eskuzabaltasunean adieraziko da.

## Espirituak sustatutako elkartea

Jesusekiko atxikimendutik, kristau elkarteko kide guztiok partaide gara bere Espirituan. Espiritua, Jesusen gorputzaren bidezko agerpena ordezkatzeko duen etengabeko agerpena da. Elkartean berriazko ezaugarria da: Espiritua, Jainkoak helarazten digun maitasuna izan eta horren bidez bizi. Espirituak Aitaren eta Jesusen agerpena sinestean bakoitzarengan eta Elizan gauzatu egiten du.



Elizak, Jainkoaren hitza entzun eta bere egitean, idaztearen bidez hitz egiten duen Espirituaren irakaspenean, heziketa eta erronka onartu egiten du. Horrela, Hitza onartu eta bere jateko egitean, Jesusekin bat egiten du eta hazi egiten da beste sinestean batzuekiko elkartasunean Jainkoaren Espirituari esker.

## Jesusen jarraitzaileak gaur

Elkarte-sena kristau fedearen osagaia da. Jainkoa, Aita dela antzeman duenak, Erreinuaren mezua ezagutu duenak... nahitaezko du bere anai-arrebekin Aita beraren seme-alabekin elkarrengana. Odol-loturak familian bizitzera garamatzen bezala, Aita berarekiko harremanak elkartean bizi nahi izatera garamatza.

Gaur, geuk jaso dugu Jesukristorenganako fedearen lekukoa gure arbasoengandik eta geuk dugu fede hori bizitzeko eta hurrengo belaunaldiei helarazteko konpromisoa.

